

BERGARAKO UDALAREN ETA JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN
ARTEKO HITZARMENA,
JARDUNEN 2024KO ZENBAIT EGITASMO DIRUZ LAGUNTZEKOA.

Bergaran, bi mila eta hogeita lauko azaroaren 2an

BILDU DIRA

Ainhoa Letea Zabaleta andrea, Bergarako Udaleko behin behineko alkatea Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi andrea, (NAN zkia: 72313638 M), Jardun kultur elkarteko lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate andrearen aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Hauetara dirak elkartearen datu fiskalak eta jakinarazpenetarakoak: IFK: G-20339107, Errotalde jauregia z.g. 20570 Bergara. Helbide elektronikoa: jardun@topagunea.eus

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

1.- Jardun Euskara Elkarteak 1991n sortu zen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Harrez geroztik izandako ibilbide guztian Bergarako Udalak eta Jardunek oso lankidetzan estua izan dute herrian euskara sustatzeko, eta helburu horrekin urte anitzeko edo urtez urteko hitzarmenak sinatu izan dituzte. Izan ere, aditu guztiak bat datoz euskara biziberritzeak ezinbesteko duela erakunde publikoen eta gizarte eragileen arteko elkarlana.

Elkarlan hori bideratzeko eskumena ematen die 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei bere 7. artikuluko 5. puntuan:

Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

Jardun da, gainera, herrian egoitza duen eta bertan jarduera jarraitua duen euskara elkarte bakarra eta, ondorioz, ez da egokia dirulaguntza-deialdirik egitea.

2.- Orain arte egindako hitzarmenen balorazio positiboa eginaz, egoki eta komenigarritzat jotzen dutela hurrengo urteetarako hitzarmen berri bat egin eta Jardunek hizkuntza normalkuntzaren alorrean egiten duen lana sendotzea.

3.- Behin behineko Alkateak 2024ko urriaren 30ean emandako Dekretu baten bitartez dirulaguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:



KLAUSULAK

LEHENENGOA: Euskara normalizatzeko Jardunek 2024an antolatuko dituen jardueretarako dirulaguntzak zehaztea da hitzarmen honen helburua. Hitzarmenaren iraupena 2024ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

BIGARRENA: Hitzarmen honen bidez Jardunek aurkeztutako euskararen normalkuntzarako egitarauak subentzionatuko ditu Bergarako Udalak, beti ere Udalak berak aparteko hitzarmen edo kontratuen bidez finantzatzen dituen ekintzak (Udaleku Irekiak, Ludoteka, Etorkinentzako errefortzuak eta Berriketan programa) kenduta. Egitarauaren gastu orokorra 181.430,00 eurokoa da 2024. urterako. Hitzarmen honen 1. eranskinean jasota dator dirulaguntzagai diren egitarauen aurrekontuaren azalpena.

Diruz lagunduko diren jardueren artean dago Euskaraldia egitasmoa dinamizatzeko 2024an egingo den lana. Egitasmo horretarako 5.000 euroko laguntza bideratuko du Udalak aurtengo aurrekontutik eta Jardunek konpromisoa hartzen du egitasmoa dinamizatzearaz arduratuko den langile bat kontratatuzeko hitzarmen honen bigarren eranskinean jasotako baldintzetan. 2025eko dinamizazio-lana bideratzeko laguntza 2025eko hitzarmenean jasoko da.

Egitarau horiek lantzeko, Udalak, 2024an, 58.000 euroko dirulaguntza emango dio Jardun elkarteari Euskara batzordearen aurrekontutik. Ordainketak hileroko bideratuko dira, hileko 4.833,33 euro.

Gastua honako aurrekontu partidari egotziko zaio: Jardun hitzarmen orokorra. (B.K.471).

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Jardun euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- b) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, dirulaguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- c) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- d) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste dirulaguntzarik lortuz gero.

Beste dirulaguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

- e) Gutxienez sei urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.
- f) Hurrengo urteko lehen sei hilabeteen barruan egingo du Jardunek urteko gastuen zuriketa eta ekintzen memoriaren aurkezpena. Bestalde, hurrengo urteko amaiera baino lehen diru-kontuen auditoria ere aurkeztu beharko du.
- g) Jardun elkarteak genero-ikuspegia txertatuko du antolatzen dituen ekintzetan, eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea. Aurkeztu beharreko ekintzen memorian, garbi jasoko du, zein neurri hartu diren horretarako: agendan, emakumearen presentzia bermatzerakoan, edukien trataeran... Aldi berean, Jarduneko langileen eta bazkideen artean, eta langileek beste pertsona batzuekin duten



Handwritten signature in blue ink.

harremanetan berdintasunezko tratua egon dadin bermatu beharko du elkarteak, eta horrela ez den kasuetan bitartekaritza lanak egin eta beharrezko neurriak hartuko ditu.

h) Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du, datuen bitartekaritza-plataformen eta dagozkien kontsulten bidez, honako informazio hau:

- Bergarako Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Dena den, interesdunek egiaztapen edo kontsulta horien aurka egiteko eskubidea dute. Kasu horretan, idazki arrazoitua aurkeztu beharko diote udalari, eta dagozkion datuak eta dokumentuak aurkeztu. Udalak ezin baditu aipatutako kontsultak egin, dagokion dokumentazioa eskatu ahal izango dio interesdunari.

i) Ez da beharrezko ikusten hitzarmen honi lotuta inolako bermerik jartzea.

LAUGARRENA: Udalak emango duen dirulaguntzaz gain helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen diren jardueren kostua.

BOSGARRENA: Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:


- a) Dirulaguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Dirulaguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, dirulaguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Jardunek hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu hitzarmen hau bukatutzat emango da, ordura arte justifikatutako gastuen arabera laguntza eman ondoren.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.



Miren Etxeberria Jauregi
Jardun euskara elkarte
presidentea

Ainhoa Lete Zabaleta
Behin behineko alkatea



1. ERANSKINA

AURREKONTUA 2024

GASTUAK		SARRERAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
PERTSONALA	116.810,00	BAZKIDETZA	18.000,00
Soldatak	78.260,00	BESTELAKOAK	2.000,00
Gizarte segurantza	38.550,00		
KULTURA	13.000,00	KULTURA	5.250,00
Kultur ekitaldiak	1.500,00	Kultur ekitaldiak	0,00
Hitzaldiak	600,00	Hitzaldiak	0,00
Amodiozko gutunak	2.500,00	Amodiozko gutunak	0,00
Bergara kantuan	1.600,00	Bergara kantuan	1.000,00
Antzerki eskola	5.200,00	Antzerki eskola	4.250,00
Bertso eskola	1.500,00	Bertso eskola	0,00
Postal lehiaketa	100,00	Postal lehiaketa	0,00
HAUR ETA GAZTEAK	9.500,00	HAUR ETA GAZTEAK	44.500,00
Txapligu	4.500,00	Txapligu	13.500,00
Aisialdi eskintza anitzak	3.000,00	Aisialdi ekintzak	1.000,00
Kanpo zerbitzuak	2.000,00	Kanpo zerbitzuak	30.000,00
SENTSIBILIZAZIOA	8.550,00	SENTSIBILIZAZIOA	12.950,00
Euskaraldia	1.000,00	Euskaraldia	5.000,00
Kanpainak	600,00	Kanpainak	0,00
Bazkidekin harremana	1.700,00	Bazkidekin harremana	0,00
Jaixetako ekintzak	4.800,00	Jaixetako ekintzak	7.950,00
Euskal triviala	450,00	Euskal triviala	0,00
KANPO HARREMANAK	1.570,00	KANPO HARREMANAK	1.400,00
Goiena	70,00	Goiena	1.100,00
Topagunea	1.500,00	Topagunea	300,00
EGITURA	12.000,00	DIRULAGUNTZAK	85.500,00
Egitura gastuak	12.000,00	Udala	53.000,00
BESTELAKOAK	20.000,00	F.A.	14.500,00
Bestelako gastuak	20.000,00	E.J	18.000,00
GASTUAK GUZTIRA	181.430,00	SARRERAK GUZTIRA	169.600,00

EMAITZA 2024

-11.830,00



2. ERANSKINA

1.- JARDUNEN EGITEKOAK EUSKARALDIA PROGRAMAREN DINAMIZAZIOAN:

Jardun euskara elkarteak dinamizatzaile bat kontratatuko du honako dedikazioarekin: 4 ordu urritik abendu amaierara. Udalak ez du kontratazio hori dela eta inolako erantzukizunik izango

Dinamizatzailea, tokiko egitasmoaren eragile nagusia izango da. Alde batetik, Euskaraldiaren herriko batzordearekin maiztasun handiko harremana eduki eta kohesionatu behar du, eta bestetik, ekimenera jende berria ekarri behar du. Hortaz, Bergarako Euskaraldia ekimenaren baitako eragiletza lanak dinamizatzaile honen ardurapekoak izango dira eta honako **zereginak** izango ditu, besteak beste:

- Herriko eragileei eta herritarrei ekimena aurkeztu (elkarteak, enpresak, norbanakoak...).
- Euskaraldiaren bueltan euskaltzaleak saretu eta osatu beharreko batzorde eta taldeak osatzen parte hartu.
- Batzordea(k) koordinatu.
- Batzorde eta taldeekin batera, herriko plangintza zehaztu eta kronograma egin (ekintzak, komunikazioa...).
- Koordinazio-batzordean zehazten diren kudeaketa lanak bideratu (entitateetarako bisitak, ekimen pilotuak...).
- Barne eta kanpo komunikazio lanak gauzatu (entitateekin harremana, batzorde eta lantaldeetako kideen arteko harremana, herriko izen ematea eta datu basea, prentsa oharrak, sare sozialak eta bestelakoak).
- Ekimenaren aurrekontua kudeatu.
- Koordinazio orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu, eta ekimen orokorreko sustatzaileekin koordinatuta egon, baita eskualdeko gainerako dinamizatzaileekin ere.



A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and strokes, positioned to the right of the official stamp.

